

37/2014 Foru Dekretuaren aurkako helegitea

Foru Dekretuak arautzen dituen atalak eta zeintzuk izango diren helegitearen xede izango direnak.

1. Zerbitzu eginkizunak.
2. Leku-aldatze leku aldaketetan parte hartzea.
3. Atzerriko hizkuntza duten lanpostuen akreditazioa.

Azken bi puntu hauek helegitearen xede izango dira. Era berean hemen bildutako sindikatuek, LAB, STEE-EILAS eta APSeK, zera salatu nahi dute, Hezkuntza Departamentuari mahai sektorialean sindikatu ezberdinek zerbitzu eginkizunen gardentasuna bermatzeko egindako proposamenak ez direla aintzat hartu.

Helegitea nortzuk jarriko dute

Irakaskuntzako sindikatu guztiek modu batean edo bestean foru dekretu honetan arautzen den hirugarren atalaren aurka daudela adierazi dute. Indar biltze bat egin nahi izan da helegitea elkarrekin aurkezteko baina azkenean modu bateratuan 37/2014 Foru Dekretuaren aurkako helegitea, LAB, STEE-EILAS eta APS sindikatuek jarriko dute.

IIP/PAI programak

Egun IIP (Ingelesa Ikasteko Programak) izendatzen diren programak, aurretik TIL zeritzon eta izaera esperimentalarekin jaio ziren, inongo araubide zehatzik gabe. Programa hauek ezartzeko ez zen inolako planifikaziorik egin, pedagogiari dagokionez ezta beharizan errealei dagokionez. 15 ikastetxetan ezarri zen, ondoren 40,60 eta datorren ikasturtean Nafarroako 90 ikastetxetan (73 ikastetxe publikotan eta 17 kontzertatuetan) ezarriko da. Ikastetxe batzuetan hezkuntza komunitatearen eskaeraz ezarri da baina gehienetan Hezkuntza Departamentuak derrigorturik ezarri du.

Irakasleen hizkuntza eskakizunak.

139/2009 Foru Aginduan programa hauetan klaseak emateko irakasleen hizkuntza eskakizunak zehaztu ziren: C1 titulua, euskara emateko eskatzen den berdina. Hezkuntza Departamentuak hasieratik bazekien ez zuela irakasle nahikorik titulu horrekin. Foru Agindu honetan, Hezkuntza Departamentuak egindako azterketa baten ondorioz 5 urtetarako akreditazioa eskaintzen zen, eta salbuespenez "maila baxuago" batekin bi ikasturtez jarraian edo txandaka programa hau duten ikastetxeetan klaseak eman ahal izan dira. Orain 37/2014 Foru Dekretuaren bitartez B2 (C1 bano gutxiago den titulua) tituluarekin klaseak eman ahal izan dira 2021 urte bitarterarte.

Hezkuntza Departamentuko arduradunek, familiei, iritzi publikoari eta Parlamentuko talde politikoei programa honi buruzko informazioa ematerakoan errealitatea ezkutatu dute: ingelesez klaseak ematen dituzten irakasleen gehiengoak ez du ingelesezko maila nahikorik kalitatezko hezkuntza bat ziurtatzeko.

Espezialitatea.

Helegitea ez da soilik ingelesezko mailari dagokion atalari ezarriko, badago are larriagoa iruditzen zaigun afera bat: Hezkuntza Departamentuak programa hauek ezarri ditu irakasleen birziklapena kontutan izan gabe. Zalantzan jartzeko modukoa da modu honetan ezarrita dauden programa hauen ikasle direnen ikaskuntza prozesua hobetuko denik.

Orain Ingelesezko espezialista izanik, Haur Hezkuntzan kotutore izatea ahalbidetu da, eta are gehiago horretan aritzeagatik, 2021 urterarte HH klaseak emateko gaitu dituzte. Egun, unibertsitatean Irakaskuntza Graduan bi espezialitate daude: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza, eta Haur Hezkuntzako espezialitatekoek soilik eman ditzakete klaseak Haur Hezkuntzan. Horretarako arrazoiak agerikoak dira, adin horretako haurren garapenaren ezagutza eta nola lagundu ikaskuntza prozesuan beraiek dakitelako. Bigarren Hezkuntzan arazoa ez da gutxiago: ingelesez klaseak ematen dituzten irakasleak daude hizkuntza horretan klaseak emateko gaitasunik izan gabe. Beren espezialitatekoak ez diren beste ikasgaietan

klaseak ematen dituzte. Ingelesa dakien irakasle batek matematika eman ezin dezakeen moduan, Haur Hezkuntzako tutore izateko ingelesa jakitea ez da nahikoa.

Errekurrituko ditugun beste gaiak: bidegabekeri konparatiboa.

IIP berez ez da hizkuntz eredua. LABen STEE-EILASen eta APSen iritziz gauzak aldrebes egiten ari dira. Nafarroako Gobernuak IIP martxan jarri du jakin gabe ea profesional nahikorik ote zegoen. Gainera, ez dute hausnarketa seriorik egin kanpoko hizkuntzak ikasteko nola egin daitekeen.

Kautelazko etetea eta egintza guztien aurkako helegitea.

Helegitearekin batera dekretuaren kautelazko etetea eskatzen da, sortu ditzakeen kalteak ekiditeko, kalte hauek konpontzea oso zaila liratekeelako. Era berean, Foru Dekretu honetatik ondorioztatzen diren zerrenda eta ekitaldiei helegitea jarriko zaie.

Argi utzi nahi dugu, ez gaudela programa hauetan klaseak ematen ari diren irakasleen aurka. Helegite hau jarriko da benetako hezkuntza kalitate baten alde eta itxurazko kalitatezko kanpainaren aurka. Atzerriko hizkuntzen ikaskuntzari dagokion garrantzia ematen diogu, baina axolagabekeria litzateke, ikaskuntza hauek abian jartzea, baldintza desegoki batzuetan, hala nola, irakasle tituludun nahikorik gabe, gaitasun nahikorik duten irakaslerik izan gabe, ikasleen beharrianak aintzat izan gabe eta berdintasun, gaitasun eta meritu printzipioak kontutan izan gabe. Hezkuntzaren kalitatean eragin zuzena du irakasleen espezializazio eta kualifikazioak.

**LAB, STEE-EILAS, APS
Iruñean, 2014 ekainak 30**
